

1965. ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA

Planteatutako gaia

Bermeoko komun publikoen, Kurtzio-Zarragoitxiko igogailuaren eta udal azokako garajearen garbitasuna. Esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Zerbitzu hau kontratatzeko prozedura negoziatua bideratu egin da. Guztira lau enpresa gonbidatu dira:

- Garbialdi, SA
- Unión Internacional de Limpiezas, SA (Uni2)
- Limpiezas Morga, SL
- La Moderna, SL

Horietatik bik aurkeztu dute beraien eskaintza, lehenengo biek.

Bigarrena: 2012ko abenduaren 12an enpresek aurkeztutako "B" gutun-azalak ireki ziren eta Kontratazioa Mahaiak eskatuta zegokion txostena egin zen 2012ko abenduaren 14an.

Hirugarrena: 2012ko abenduaren 17an "C" gutun-azalak ireki ziren.

Argudioak

Bakarra: Dokumentazio osoa aztertu ondoren eta kalifikatzeko sistema kontuan harturik, honako hau da jarritako puntuazioa:

Eskaintzak	Eskaintza ekonomikoa (0-80)		Hobakuntzak (0-20)	Guztira (0-100)
Garbialdi	73.000,10€	70,48	10	80,48
Uni2	72.838,32€	80	15	95

Erabagia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoko komun publikoen, Kurtzio-Zarragoitxiko igogailuaren eta udal azokako garajearen garbitasuna Unión Internacional de Limpiezas, S.A. (UNI2) enpreseari esleitzea, 36.419,16 eurotan (BEZ kanpo) urteko, BEZari dagokion kantitatea 7.648,02 €-koa da (Guztira: 44.067,18€).

BIGARRENA: Kontratuan jasotzea enpresak aurkeztutako hobekuntza guztiak.

Bermeon, 2012ko abenduaren 28an
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA